

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2015eko urtarrilaren 26an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**7.- “GEURIEN BE BAI” EGITASMOA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.**

**Xedea**

*Geurien be bai* egitasmoa kudeatzeko zerbitzuaren esleipena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Kontratu honen xedea *Geurien be bai* egitasmoa kudeatzeko zerbitzua emotea da, baldintza administratibo eta teknikoetan ezarten dan eran.

Bigarrena: Zerbitzu hau kontratatzeko publizidade bako prozedura negoziadua bideratu da, Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko abenduaren 22an onetsitakoaren arabera. Guztira hiru enpresa gonbidatu dira:

- Elhuyar-Zubize, S.L.U.
- Emun, Koop. E.
- AEK /AHIZE hizkuntza aholkularitza

Horreetatik, Elhuyar-Zubize, S.L.U.-k eskaintzea aurkeztu dau, beste biek, ordea, ez.

**Argudioak**

Lehenengoa: Elhuyar-Zubize, S.L.U.-k aurkeztutako proposamena aztertuta, proposamen teknikoari jagokonez, egitasmoaren helburuagaz bat dator, lan metodologia egokia planteatzen dau eta adierazle sistema proposatzen da egitasmoa ebaluatzeko.

Bigarrena: Hobekuntzen atalean, baldintza-agirietan jasotako hobekuntzak proposatu dabez, lantaldearen osaketeari, koordinazino-bilerei eta herritarrakazko hartu-emonei buruz eta horrez gain, beste hobekuntza batzuk proposatu dabez arlo honeei jagokonean: hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa, hizkuntza-jarrerak, genero-ikuspegia eta teknologia barrien erabilera, eta danak bat datoz egitasmoaren helburuakaz.

Hirugarrena: Kaudimen teknikoari jagokonez, nahikoa probatu dabe.

Laugarrena: Proposamen ekonomikoak, barriz, baldintza-agirietan zehaztutakoa hobetzen dau. Hauxe da: 37.900,10 € + 7.959,02 € (BEZa). Guztira: 45.859,12 €

### **Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: *Geurien be bai* egitasmoa 2015eko urtarriletik aurrera eta hamabi hilabetez kudeatzeko zerbitzua Elhuyar-Zubize, S.L.U.-ri esleitzea prezio honetan: 37.900,10 € + 7.959,02 € (BEZa). Guztira: 45.859,12€, Euskera Sailaren 2015eko aurrekontuaren pentzura.

\*Idazkari andreak ohartarazo dau, 2015eko Aurrekontu Orokorra oraindino indarrean sartu barik dagoela eta, ondorioz, kontsignazioa egoteko 2015eko Aurrekontu Orokorra indarrean egon behar dauela eta gastua aurreikusita egon beharko dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2015eko urtarrilaren 28an.

ONETSIA  
ALKATEA